



Universidad
del País Vasco

Euskal Herriko
Unibertsitatea

LAN HARREMAN
ETA GIZARTE LANGINTZA
FAKULTATEA
FACULTAD
DE RELACIONES LABORALES
Y TRABAJO SOCIAL

2020ko urriaren 14an Zentroko Batzarrak
onartuta

IKASTEGIKO IKASLEENTZAKO HARRERA ETA ORIENTAZIO PLANA 2020/2024

Tarteko balorazioa eta eguneraketa.

2022ko urtarrila

Aurkibidea

1. SARRERA.....	4
2. UNIVERSIDAD DEL PAÍS VASCO/EUSKAL HERRIKO UNIBERTSITATEA: GURE TITULAZIOAK	5
3. PLANAREN HELBURUAK.....	8
4. PROGRAMAK.....	9
4.1. Orientazio programa etorkizuneko ikasleentzat	9
4.1.1. Informazio saioak.....	9
4.1.2. Unibertsitate orientazioko azokak.....	9
4.1.3. Ateak zabaltzeko egunak.....	9
4.1.4. Jarduera praktikoak.....	10
4.1.5. Master Egunak.....	11
4.2. Ikasleentzako harrera programa.....	11
4.2.1 Graduako ikasleentzako harrera programa.....	11
4.2.2.- Graduondoko ikasleentzako harrera programa.....	12
4.3. Taldeei/mailei ongietorria egiteko programa.....	12
4.4.-Berdinen arteko Tutoretza Plana.....	13
4.5. Taldeen ordezkariak.....	14
4.6. Diziplina eta elkarbizitza.....	14
4.7. Rexak eta iradokizunak.....	14
4.8. Irakasgaiak, moduluak eta titulazioa koordinatzeko programa.....	15
4.8.1. Praktiken programa	15
4.8.2. Garapenerako lankidetzaren praktiken programa.....	16
4.8.3. Mugikortasuna.....	17
4.8.4. Espezializatzeko ibilbideak, hautazko irakasgaiak eta minorrak.....	20
4.8.5. Gradu Amaierako Lanaren programa.....	20
4.8.6 Prestakuntza Duala.....	21
4.8.7.- LSOMeko eta GBKUMeko praktika programak.....	22
4.9. Prestakuntzarako laguntza programa: tutoretzak (fitxak eta abar) 22	
4.10. Dibertsitate funtzionala/desgaitasuna duten pertsonen laguntzeko programa	23
4.11. Ikasleak laneratzeko orientazio programa	24
4.11.- Graduako ikasleak laneratzeko orientazio programa.....	24
4.11.- Graduondoko ikasleak laneratzeko orientazio programa.....	25

4.11.3-Hezkuntza esparruutik lan arlora igarotzeko beken programa.....	25
5. IRAKASKUNTZARAKO PLATAFORMA TEKNOLOGIKOAK.....	25
6. IKASTEGIAREN BARRUKO KOMUNIKAZIO MEKANISMOAK.....	26
8. PROGRAMEN KRONOGRAMA.....	28
9. Ebaluatzaileen taula: EBALUAZIO TRESNAK ETA MAIZTASUNA	29
10. PROGRAMAREN ERAGINKORTASUNARI BURUZKO TAULA. 2020/2021 ikasturteko memoria eta 2021/2022, 2022/2023 eta 2023/2024 ikasturteetarako plana.....	32

1. SARRERA

Ikaslea da, zerbitzua ematen diogun gizartearekin batera, gure fakultatearen interes talde handiena. Ikasleen prestakuntza eta gaitasun akademiko zein profesionala dira helburu nagusiak, kudeaketa, irakaskuntza eta ikerketaren arloan egiten dugun lanaren ardatza.

Prestakuntza eta gaitasunak eskuratzeko prozesu horretan ikastegiko irakasle-ikertzaileen eta administrazio eta zerbitzuetako langileen laguntza jasotzen dute, orientazioa eta aholkuak ematen baitizkiete bizitza akademikoan, profesionalean eta pertsonalean eragina duten erabakiak hartzeko. Informazio saioak, tailerrak, jardunaldiak, programak kudeatzean egiten diren topaketak, eta irakasgaiei lotutako tutoretzak dira gure langile guztiek, uneren batean, parte hartzen duten eta aurrera eramaten dituzten jardueretako batzuk.

Ikaslearen eskubidea da bere bizitza akademiko eta profesionalari eragiten dioten gaiei buruzko orientazioa eta informazioa jasotzea, horrela baitago jasota Unibertsitateei buruzko abenduaren 21eko 6/2001 Lege Organikoko 46. artikuluan (eta lege hori aldatu zuen apirilaren 12ko 4/2007 Lege Organikoan), eta gure fakultateak modu aktiboan erantzuten du. Ikasleen Estatutuak honako hau dio V. kapituluko 19. artikuluan (1791/2010 Errege Dekretuaren bidez onartua eta BOEn argitaratua): "Los estudiantes recibirán orientación y seguimiento de carácter transversal sobre su titulación. Dicha información atenderá, entre otros, a los siguientes aspectos: a) Objetivos de la titulación; b) Medios personales y materiales disponibles; c) Estructura y programación progresiva de las enseñanzas; d) Metodologías docentes aplicadas; e) Procedimientos y cronogramas de evaluación; f) Indicadores de calidad, tales como tasas de rendimiento académico esperado y real de los estudios; tasas de incorporación laboral de egresados".

Gure prestakuntza programaren ezaugarri nagusiak printzipio hauek dira:


- Ikasleen parte hartze aktiboa ikastegiak abian jartzen dituen programen kudeaketa, garapen eta ebaluazioan.
- Ikastegiaren kudeaketaren gardentasunarekiko konpromisoa.
- Gizartearekiko konpromisoa, ikasleak harremanetan jarriz gizartearen errealitatearekin, baliabideekin, eta gizartea eraldatzeko eta hobetzeko aukerekin.
- Aniztasunarekiko errespetua eta lankidetzeta, helburu komunak lortu ahal izateko.
- Gure jardueretik eta lan egiten dugun taldeen jardueretik konpromiso etikoa.
- Emakumeen eta gizonen genero berdintasuna.

— Euskal gizarteko hizkuntza ofizialen berdintasuna.

2. UNIVERSIDAD DEL PAÍS VASCO / EUSKAL HERRIKO UNIBERTSITATEA: GURE TITULAZIOAK

Lan Harreman eta Gizarte Langintza Fakultateak kudeatzen dituen titulazioak UPV/EHUren antolaketa egituran daude kokatuta. Gure unibertsitateak Ikasleentzako Argibide Zerbitzua dauka hiru campusetan (<https://www.ehu.eus/eu/web/sou/hasiera>), eta zerbitzu horrek laguntza eta aholkua ematen die ikastegiei, Bigarren Hezkuntzako zein unibertsitateko ikasleei informazioa eta orientazioa ematerakoan. Eskariak jasotzen ditu eta laguntzen die fakultateei eskariok erantzuteko egin behar den plangintzan eta kudeaketarekin, bai eta ikasle berriak erakartzeko programa ofizialetan parte hartzen ere.

Fakultateko graduak –Lan Harreman eta Giza Baliabideetako Gradua eta Gizarte Langintzako Gradua– lau urtekoak dira eta ikasturte bakoitzean 90 eta 125 plaza berri eskaintzen dira, hurrenez hurren. Negozioen Kudeaketa eta Lan Harreman eta Giza Baliabideetako Gradu Bikoitza bost urtekoa da eta bertan 30 plaza eskaintzen dira. Ikasleen orientazioaren kudeaketaren azken arduraduna dekanotza taldea da.



Dekanoaren eta egoitzaren koordinazioko eta mugikortasuneko dekanordearen ardurak dira, besteak beste, honako hauek:

- Ikastegiaren funtzionamendua kudeatzea.
- Ikastegiaren kanpo harremanez arduratzea/ikastegiaren ordezkaria izatea eta, behar izanez gero, eginkizun horiek eskuordetzea.
- Titulaziorako interesgarriak diren gaiak buruzko informazioa ematea ikastegiko taldeei (irakasle eta ikertzaileak, AZP eta ikasleak), titulazioaren koordinatzaileekin batera.

- Hezkuntza premia bereziak dituzten ikasleentzako arreta protokoloak aplikatzea atalean.
- Laguntza ematea ikasleen ordezkari.
- Webguneko postontziaz eta iradokizunetarako postontziaz arduratzea eta, hala behar izanez gero, kasuan kasuko arduradunei helaraztea mezuak.
- Egoitzaren mugikortasun programak
- Gradu Amaierako Lana aukeratu, aurrera eraman eta ebaluatzeko prozesuari buruzko informazioa, lan horien koordinatzaile direnekin batera.

Curriculumeko Praktiketako eta Garapenerako Kooperazioko dekanordeak ardura hauek ditu:

- Arabako Ataleko ikasleen praktikak aukeratu, aurrera eraman eta ebaluatzeko prozesuari buruzko informazioa.

Prestakuntza Dualeko eta Borondatezko Praktiketako dekanordearen ardurak hauek dira:

- Bizkaiko Egoitzako ikasleen praktikak aukeratu, aurrera eraman eta ebaluatzeko prozesuari buruzko informazioa.
- Prestakuntza dualaren urteroko deialdiaz informazioa ematea eta deialdia zabaldu eta kudeatzea.
- Ikasleen laneratze prozesurako orientazio programa.

Komunikazioko eta Irakaskuntza Berrikuntzako dekanordearen eginkizunak:

- Egoitzan ematen diren eskolen ordutegiak eta azterketa egutegiak egitea eta ezagutzera ematea.
- Ikasle berriak erakartzeko eta titulazioaren berri emateko programaz arduratzea egoitzan:
 - Unibertsitate orientazioko azokak
 - Ateak zabaltzeko egunak
 - Informazio saioak Bigarren Hezkuntzako ikastetxeetan
 - Bigarren Hezkuntzako ikasleentzako praktikak
- Sare sozialen eta web orriaren bidezko komunikazioaren kudeaketa
- Baliabide materialen kudeaketa antolatzea, behar bezala erabiltzen direla ziurtatzea eta etorkizuneko beharrak aztertzea.

- Gradu bikoitza koordinatzea txandaka

Antolakuntza Akademikoko dekanordearen eginkizunak:

- Espazioen kudeaketa (irakaskuntzarako gela, GrAL-en epaimahaiak, etab)
- Akademia antolakuntzaren arloko informazio garrantzitsua argitaratzea (eskolen aldaketak, bertan behera uzteak...).
- Ikasleen harrera.
- Ikasle berriak erakartzeko eta titulazioen berri emateko programaz arduratzea atalean:
 - Unibertsitate orientazioko azokak
 - Ateak zabaltzeko egunak
 - Bigarren Hezkuntzako ikasleentzako praktikak
 - Informazio saioak Bigarren Hezkuntzako ikastetxeetan
- Ikasleen laneratze prozesurako orientazio programa.

Ataleko dekanorde Koordinatzaile eta Berdintasuneko eta Nazioartekotzeko dekanordearen eginkizunak:

- Mugikortasunari eta nazioartekotzeari lotutako zuzendaritza, koordinazio eta gainbegiratze lan guztiez arduratzea atalean.
- Berdintasunaren arloko zuzendaritza, koordinazio eta gainbegiratze lan guztiez arduratzea fakultatean.
- Akta eta kalifikazioei dagozkien zuzendaritza, koordinazio eta gainbegiratze lan guztiez arduratzea atalean.
- Idazkari akademikoari eskuordetutako eginkizunei lotutako aktak eta egintzak sinatzea, baldin eta kasuan kasuko erabaki edo egintzak atalari bakarrik eragiten badio.

Fakultatean titulazio hauek irakasten dira:

- Lan Harreman eta Giza Baliabideetako Gradua
- Gizarte Langintzako Gradua
- Negozioen Kudeaketako eta Lan Harreman eta Giza Baliabideetako Gradu Bikoitza
- «Laneko Segurtasun eta Osasuna» masterra
- «Giza Baliabideen eta Enpleguaren Kudeaketa» masterra
- Gizarte eta Lan Arloko Aholkularitzako berezko titulua
- Etika Soziosanitarioko berezko titulua (espezialista/aditua)
- Gizarte Zerbitzuen Kudeaketa eta Berrikuntzako berezko titulua (espezialista)
- «Gainbegiratzea Gizarte Ekintza Testuinguruetan» berezko titulua
- «Generoa, Maskulinitateak eta Gizarte Ekintza» berezko titulua

3. PLANAREN HELBURUAK

Ikastegiko langileei zuzenduak:

- Orientazio prozesuetan parte hartzen duten irakasleen eta AZPkoen lana gidatuko duten **jarduera ildoak** ezartzea.
- Ikasleekiko **komunikazio eta lankidetzaren prozesuak** hobetzea.
- Ikasleen arreta pertsonalerako **neurriak** sustatzea **antolaketaren eta curriculumaren esparruan**, kontuan hartuta bereziki dibertsitatearekin zerikusia duten gaiak.
- Ikasleentzako **orientazio programak** hobetzeko jarduerak ebaluatu eta ezartzea.

Ikasleei zuzenduak:

- Ikasleak unibertsitatera eta fakultatera **egokitzeko prozesua** erraztea.
- Ikaslearen irakaskuntza-ikaskuntza prozesuaren **jarraipen pertsonala** eskaintzea.
- Ikasleek titulazioko **gaitasun** orokorrak eta espezifikokoak **berengana** ditzatela bultzatzea.
- **Erabakiak hartzeko prozesua** erraztea ikasleei.

4. PROGRAMAK

4.1. Orientazio programa etorkizuneko ikasleentzat

Fakultatearen eta bertan irakasten diren titulazioen berri emateko formula moduan, Ikasleen eta Enplegarritasunaren arloko Errektoreordetzak **ikastegi eta graduen liburuxkak** argitaratzen ditu, unibertsitate aurreko ikasleei informazioa emateko unibertsitate orientazioko azoketan eta atek zabaltzeko egunetan.

4.1.1. Informazio saioak

Erabaki dugu Batxilergoko ikastetxetara aurrez aurreko bisita egin beharrean, jarduera telematiko bat egitea. Dekanotzak mezu bat bidaliko du EAEko ikastetxe guztietara, beren beregi prestatutako material baten esteka bidaliz (bideo tutorial bat). Bertan fakultateko bi graduei eta gradu bikoitzari buruzko informazio xehe-xeha aurkeztuko dugu. Materiala euskaraz eta gaztelaniaz dago. Hala ere, Batxilergoko ikastetxeek eskatzen badigute, aurrez aurreko hitzaldiak ere emango ditugu, ikasle nahikok interesa agertzen badu.

4.1.2. Unibertsitate orientazioko azokak

Azokak IAZek antolatzen ditu, eta ikastegiko dekanotza taldeak koordinatzen ditu. Elkarren segidako hiru larunbatetan egingo dira campus bakoitzean, eta eskaintzen diren graduei buruzko informazioa nahi duten pertsoneri, etorkizuneko ikasleei eta/edo senideei daude zuzenduta. Irakasleek informazioa indibiduala ematen duten stand-etan, bai eta taldeei zuzendutako informazioa ere saio espezifikoetan.

Gai hauei buruzko informazio idatzia zabaltzen da: graduak, ikastegiaren kokapena, garraio publikoan heltzeko moduak, unibertsitaterako sarbideak, bekak, tasak, biblioteka, kirol jarduerak, lan aukerak, graduondoko ikasketak, etab.

4.1.3. Ateak zabaltzeko egunak

Egun horietan ikastegiak atek irekitzen ditu eta informazio saioak eskaintzen ditu, bai eta bisita gidatuak ere instalazioetara eta campusera.

Bertaratuei ongietorria egin ondoren, jardunaldiaren nondik norakoak azaltzen zaizkie. Gero, talde txikietan, ikasle bisitariak ikasle laguntzaileekin batzen dira, beren kezkek, aurreikuspenak, bisitaren aurreko zalantzak eta abar jasotzeko. Material hori, ondoren,

informazio saioaren irakasle arduradunei helarazten zaie eta, ikastegiaren webgunearen laguntzaz, erantzuna ematen diete gai hauei:

- Titulazioa zer den.
- Zeintzuk lan aukera eskaintzen dituen.
- Zeintzuk diren irakasgaiak.
- Praktikak egiteko eskaintza.
- Ikasleen mugikortasuna, ERASMUS, SICUE eta Latinoamerika programen bitartez.
- Erabakiak hartzeko une garrantzitsuak maila bakoitzean.
- Ikasle laguntzaileen esperientziak.

4.1.4. Jarduera praktikoak

Unibertsitatea bigarren hezkuntzako ikastetxeetara eta helduen hezkuntzako ikastetxeetara hurbiltzeko asmoz, Eusko Jaurlaritzako Hezkuntza Sailak eta UPV/EHUK (Ikasleentzako Argibide Zerbitzua) jarduera praktikoak antolatzen dituzte urtero, Euskal Autonomia Erkidegoko Batxilergoko, Lanbide Heziketako, Arte Irakaskuntzetako eta Kirol Irakaskuntzetako goi mailako zikloetako ikasleei zuzenduak.

Tailer praktikoan helburua da ezagutzera ematea graduen edukiak, bai ikuspegi akademikotik bai ikuspegi praktikotik, pentsatuz etorkizuneko ikasleei interesatzen zaizkiela, ikasketen antolaketaz gain, etorkizunerako aukerak.

Gizarte Langintzako ikasketetara hurbiltzen diren pertsonak gizarte ekintzarekiko eta gizarte politikekiko sentsibiltatea izaten dute bazterkeriaren eta desberdintasunaren arloan, eta, horrexegatik, jarduera horri erantzutera bideratuta dago.

Praktikak, IKUSARAZI GIZARTE LANGINTZA GURE GIZARTEAN, garrantzi berezia ematen die esparru horretako lan aukerei, guztion artean lanbide eraginkor eta efiziente bat eraikitzeko beharrezkoak diren oinarrizko printzipio eta trebetasunak ezagututa.

Lan Harreman eta Giza Baliabideetako Graduaren aztergaia lan mundua da, arlo guztietan. Saioan curriculum izaerako bi kasu praktiko aztertzen dira, Lan Arloko Zientziei lotuak: bata, software informatikoarekin egindako zerga praktika; eta, bestea, lan arloko zuzenbideko praktika.

4.1.5. Master Egunak

UPV/EHUko Graduondokoaren arloko Zuzendaritzak Master Egunak antolatzen ditu, fakultateetako ikasleei masterren berri emateko. Graduondokoaren arloko Zuzendaritzak masterren arduradunei eskatzen die masterra aurkeztu nahiko luketen fakultateen zerrenda aurkezteko, eta horrela bakoitza bere xede ikasleengana hel daiteke. Honakoen berri ematen da, besteak beste:

- Ikasketa plana Irakasgaiak, praktikak, MALa
- Irteera profesionalak
- Irakasleak
- Ordutegiak, egutegiak etab.

4.2. Ikasleentzako harrera programa

4.2.1 Graduon ikasleentzako harrera programa

Dekanotza taldea arduratzen da ikasleen harreraz. Helburua da ongietorria egitea bai ikasle berriei bai ikastaro berriak egingo dituztenei, eta indartzea gure konpromisoa pertsonen garapen etikoarekiko eta lan egiten dugun gizartearekiko. Dekanotza taldea ikasleei irekita dago informazioa emateko, iradokizunak jasotzeko, arazoak konpontzeko eta sor daitezkeen bestelako gaietarako. Informazioa urtero eguneratzen da eta ikastegiaren webgunean argitaratzen da. Zehatzago esanda, graduak egiten hasten diren ikasleei:

- Dekanotza taldeko kideak aurkezten zaizkie.
- Titulazio bakoitzeko irakasle kopuruari eta sailei buruzko informazioa ematen zaie.
- Ikastegiko AZPko langileei buruzko informazioa ematen zaie, eta beren eginkizunetatik ikasleentzat interesgarriak izan daitezkeenak azaltzen zaizkie.
- Eskaintzen diren zerbitzuak jakinarazten zaizkie, ikastegikoak zein campusekoak: Biblioteka, enplegu gunea, erregistroko bulegoak, Ikasleentzako Argibide Zerbitzua, Desgaitasunak dituzten Pertsonentzako Zerbitzua, Berdintasunerako Zuzendaritza, Lankidetzak, eta Prebentzio Zerbitzua.
- Ikastegiko espazioen antolamenduari buruzko informazioa ematen da, bai eta informatika gela eta IKD espazioa erabiltzeko arauak ere.

- Kredituak baliozkotu eta aitortzeko prozedurari buruzko informazioa ematen da, eskariak egiteko epeak jakinarazi, eta tramiteak webgunearen eta Ikasleen Idazkaritzaren bitartez egiteko inprimakiak non aurkitu azaltzen da.
- Webgunean eskaintzen den informazioari buruzkoak azaltzen zaizkie ikasleei: non topatu unibertsitateari buruzko araudia, titulazioaren gaineko oinarrizko informazioa, ikasketen antolaketa, eskolen ordutegiak, eskola egutegia, azterketen egutegia, etab.
- Graduoko maila bakoitzeko ezaugarri berezien berri ematen da: aurrebaldintzak dituzten irakasgaiak, hautazko irakasgaiak, practicuma, ingelesez eskaintzen diren irakasgaiak, gradu amaierako lanak, mugikortasuna, maila bakoitzeko koordinazioa, etab.

4.2.2.- Graduondoko ikasleentzako harrera programa

Masterraren arduradunari dagokio masterra hasi aurretik ikasleei harrera egiteko saio bat egitea. Helburua da ikasleei ongi etorria ematea, masterraren inguruko xehetasun guztiak azaltzea, eta fakultatearen konpromisoa berrestea pertsonen garapen etikoarekin eta gure lana eskaintzen diogun gizartearekin.

4.3. Taldeei/mailei ongietorria egiteko programa

Modulu bakoitzeko talde guztietan jardunaldi bat egiten da urtero, eta bertan ematen zaie maila horretan bereziki garrantzitsuak diren gai buruzko informazioa. **Talde guztiei gai orokor hauek** azaltzen zaizkie, besteak beste:

- Fakultatearen webguneko informazioa eta erakundearen helbide elektronikoaren garrantzia.
- Eraikinaren ebakuazio arauak (bideoa ikusgai dago fakultatearen webgunean).
- Taldeen ordezkariak aukeratzea, bai eta Ikasleen Kontseilua ere, nor bere burua kudeatzen duen unibertsitate publiko batean egotearen garrantzia eta parte hartzearen beharra azpimarratuz.
- Taldeen ordezkarien eta Ikasle Kontseiluaren garrantzia. Edozein kexa, iradokizun edo zalantza dekanotza taldeko kasuan kasuko arduradunarekin partekatzeko gonbidapena.
- Eskoletara joateko derrigortasuna: ikasgelako irakaskuntza eta matrikula partziala egiteko aukera; irakasgaien ebaluazioek ez dute justifikatzen eskoletara ez joatea.

- Tutoretza saioak erabiltzea, batez ere irakasgai bat gainditzen ez denean, horrek ez dezan eragin ikasketak bertan behera uztea.
- Gradu bikoitzari buruzko informazioa eta matrikulako datuak taldeetan, irakaskuntzako hizkuntzaren arabera.
- Ikastegiaren baloreak, hala nola berdintasuna, aberastasunaren banaketa, euskararen erabilera bultzatzea eta jasangarritasuna.

Gainera, maila bakoitzean, gai **espezifikoko** hauei buruzko informazioa ematen da:

- Lehenengo eta bigarren mailan mugikortasunerako hizkuntzek duten garrantzia azpimarratzen da, eta Berdinen arteko Tutoretza Programaren berri ematen da. Lehen mailan ongi etorria laburragoa da, unibertsitateko lehen eguneko harrera ekitaldia egin berria delako, eta, beraz, ebakuazio plana besterik ez delako azaldu behar.
- Hirugarren mailan honako hauei buruzko informazioa ematen da: praktiken programa, mugikortasuna, "Prestakuntza Duala" ibilbidearen ezaugarriak, eta gradu amaierako lanei buruzko mintegia.
- Laugarren mailan gradu amaierako lanari buruzko informazio zabalagoa ematen da, elkargo profesionalekiko lankidetzaz hitz egiten da, Ehualumniren berri ematen da eta bertako kide egitearen abantailak azaltzen dira.

4.4.-Berdinen arteko Tutoretza Plana

Ikasleek unibertsitatera lehenengoz heltzean izaten dituzten premia/zailtasun nagusiak gehienbat informazio edo aholku faltatik datoz: ezezagunak zaizkie graduen egitura, unibertsitatearen antolaketa, arautegiak, beren eskubideak eta betebeharrak, ikasleen ordezkari zertan den... Horri gehitu behar zaizkio beren bizitzako une horri lotutako premia pertsonalak.

Berdinen arteko tutoretza plan honen helburua da unibertsitatera datozen ikasle berriei berton egokitzen eta integratzen laguntzea hala arlo akademiko eta sozialean nola pertsonalean, goragoko mailako ikasledeen esperientziaz baliaturik. Momentuz Lan Harreman eta Giza Baliabideetako Graduan baino ez dago.

Ikasleek izan ohi dituzten premiak lau arlotan banatu ditugu: akademikoa, kudeaketakoa, administratiboa eta zerbitzuetakoa.

Hiru fasetan egiten dira ekintzak: lehen fasean, planaren berri emango da, eta tutore izan nahi duten ikasleak erakarri eta euren arteko hautaketa egingo da. Bigarren fasean prestakuntza emango zaie bai ikasle berriei eta bai ikasle tutoreei. Azkenik, hirugarren fasean planaren balorazioa egingo da inkesten bitartez.

4.5. Taldeen ordezkariak

Ikasturteko lehen asteetan aukeratzen da ordezkaria talde bakoitzean, eta hauek dira eginkizun nagusiak:

- Taldeko ikasleen ordezkariak lanetan aritzea
- Taldeko biltzarraren bilerak prestatu, bilera deiak egin eta bileretako buru izatea.
- Taldeko biltzarraren proposamenak Ikasleen Kontseiluari eta mailako koordinatzaileari helaraztea, baita ikastegiko zuzendaritzari ere.
- Ikastegiko zuzendaritzak deitutako bileretan parte hartzea.
- Egindako jardueren eta hartutako erabakien berri ematea ikaskideei, bai eta ikastegiko gainerako organoen jardueren eta erabakien berri ere, Ikasleen Kontseilua moduko ikasleen organoenak barne.
- Ikastegiko eta ikasgeletako instalazioen erabilera egokiaz arduratzea

4.6. Diziplina eta elkarbizitza

Ikastegiko elkarbizitzaren oinarrizko alderdiak arautzen dituen araudi bat dago (esate baterako, puntualak izateko beharra), debekatuta dauden jarduerak ere zehazten dituen: mugikorrek erabiltzea irakaskuntzaz kanpoko jardueretarako, janaria sartzeari geletan, eta zarata edo elkarrizketak ikasgeletan, besteak beste Helburua da, azken batean, errespetua nagusi izango den espazio bat lortzea, non helburu akademikoak modu atsegin eta egokian garatuko ditugun.

4.7. Kexak eta iradokizunak

Ikasleek iradokizunak edo kexak aurkez ditzakete, idatziz, erregistroaren bidez edo posta elektronikoz. Fakultatearen webgunean ere badugu erlantz bat horretarako. Dekanotza taldeak konpromisoa du interes taldeek aurkeztutako iradokizunak eta kexak aztertzeke eta haiei berehala erantzuteke. UPV/EHUko eta fakultateko arautegietan daude zehaztuta erreklamazioen epeak eta baldintzak, eta denentzat ikusgai Interneten bidez.


4.8. Irakasgaiak, moduluak eta titulazioa koordinatzeko programa

Titulazio bakoitzean titulazioko koordinatzaile bat edo mailako koordinatzaileak daude, eta beren eginkizunak lotuta daude gizartearekiko konpromisoarekin alderdi hauetan:

- ikasleen lan zama,
- irakasgai batzuetan gai berberak lantzea,
- gaitasunen garapena,
- irakasgaietako gidetan ematen den informazioa,
- beste batzuk

Hobekuntza proposamenak eta iradokizunak jasotzen ditu, eta ikasleen esku hartzea sustatzen du titulazioaren ebaluazio prozesuan, gaitasunen garapenari dagokionez.

Titulazioko koordinatzailea honela agertzen da organigraman:



4.8.1. Praktiken programa

Lan Harreman eta Giza Baliabideetako Graduan

Lan Harreman eta Giza Baliabidetako praktiken programa Prestakuntza Dualeko eta Borondatezko Praktiketako dekanordeak kudeatzen du.

Praktikak borondatezkoak dira baina, egin ahal izateko, gaindituta izan behar dira 120 kreditu; hau da, hirugarren edo laugarren mailan.

Hirugarren mailaren hasieran, praktiken programari buruzko informazioa ematen die dekanordeak ikasleei, bai eta betebeharreri eta prozedurari buruzkoa ere.

Ikasleak praktketan izan nahi dituzten enpresak harremanetan jartzen dira fakultateko Borondatezko Praktiken Zerbitzuarekin, eskaintza egiteko. Edonola ere, arlo horren ardura daukan dekanordeak onespina eman behar du.

Borondatezko praktiken hitzarmena egin ahal izateko gutxienez 150 ordu (6 ECTS) dira beharrezkoak, eta gehienez 300 ordu (12 ECTS). Dena dela, egoki ikusiz gero, hitzarmenak luzatu ahal izango dira, 600 ordura arte.

Gizarte Langintzako Graduan

Gizarte Langintzako praktiken programa Curriculumeko Praktiken dekanordeak eta Practicumeko koordinatzaileak kudeatzen dute.

Gizarte Langintzako Graduoko praktikak curriculumekoak dira, eta laugarren mailan egiten dira.

Ikasleari lehenengo mailan ematen zaio prozedurari buruzko informazioa, eta praktiken arloa aukeratzeko irizpideak azaltzen zaizkio. Bigarren mailan, ikastegiak eskaintzen dituen arloei buruzko informazioa ematen zaio, ikasleak besteren bat proposatu nahi badu denbora izan dezan. Hirugarren mailan, lehenengo lauhilekoan, praktiken koordinatzaileak eta horien ardura daukan dekanordeak tailer bat egiten dute, eta bertan azaltzen dute practicuma nola kudeatzen den, zeintzuk arlotan egin daitekeen, eta nola egiten den aukeraketa.

Laugarren mailan, irakasle tutore bat esleitzen zaio ikasleari, aholkuak eta laguntza emateko praktikak egiten ari den bitartean.

4.8.2. Garapenerako lankidetzako praktiken programa

Programa hau ikastegiko teknikariak eta Curriculumeko Praktiketako eta Garapenerako Lankidetzako dekanordeak kudeatzen dute.

Curriculumeko kanpoko praktiken programen antzekoa da. Aldea da ikasleak, praktikak egin ahal izateko, garapenerako lankidetzako unibertsitariori buruzko ikastaro bat egin behar duela, on line, hirugarren mailan, UPV/EHUko Garapenerako Lankidetzako Bulegoak antolatuta. Ikastegiak eskaintza espezifiko bat egiten du hainbat arlotan praktika hauetarako, eta horiei buruzko informazioa ematen zaie ikasleei aldez aurretik. Praktikak esleitzeko irizpidea espediente akademikoaren batez besteko nota izango da, esleipenaren unera arte kontuan harturik, bertan egiten diren praktketan bezala.

Bisatu kontuak direla eta praktika hauek urri eta otsail artean egiten dira, ikasleak aurrez aurre egon daitezten taldeko tutoretzetan eta presta ditzaten memoriak eta gradu amaierako lanak.

4.8.3. Mugikortasuna

Lan Harreman eta Gizarte Langintza Fakultateak mugikortasun programa hauetan hartzen du parte: ERAMUS, SICUE, Latinoamerika eta Beste Norakoak. Eskaria egiten duten ikasleen kopurua nabarmen hazi da azken urteotan, bai kanpora joan nahi dutenena, bi graduetan, eta bai gurera etorri gura dutenena, azken talde hori bereziki Gizarte Langintzako Graduan.

Mugikortasun programa hauen helburua da, besteak beste, esperientziak eta ikaskuntzak trukatzeko eta gure ingurune hurbiletik harago dauden beste errealitate akademiko eta sozial batzuen berri ematea, eta topaketa eta ikerketa sareak sustatzea, abiatuta kultura aniztasunetik eta beste herri batzuekin lankidetzan aritzeko konpromiso etikotik.

Antolaketari dagokionez, Gizarte Langintzako Graduan mugikortasuna 3. mailan egiten da, eta Lan Harremanetako Graduan, berriz, 4. mailan egiten da nazioarteko mugikortasuna eta 3. edo 4. mailan SICUE mugikortasuna. NK+LH+GBetako Gradu Bikoitzean bai SICUE mugikortasuna eta bai nazioarteko mugikortasuna 4. mailan egiten dira.

Lehenago, aurreko ikasturtean, informazio bilera egiten dira Gizarte Langintzako 2. mailako ikasleekin eta Lan Harreman eta Giza Baliabideetako 3. mailako ikasleekin nazioarteko mugikortasunaz, eta 2. eta 3. mailako ikasleekin SICUE mugikortasunaz. NK+LH+GBetako Gradu Bikoitzeko ikasleekin informazio bilera hori 3. mailan egiten da, bai SICUE mugikortasunerako eta bai nazioartekorako.

Hiru informazio bilera egiten dira, bat mugikortasun programa bakoitzeko, interesa duten edo hautatuak izan diren ikasleekin. ERASMUS+ eta SICUE Azaroan zehar lehen informazio bilera egiten da. Bertan azaltzen dira mugikortasun programak, eta zehazten dira bakoitzaren baldintza akademikoak, hizkuntza eskakizunak, programa bakoitzerako dauden dirulaguntzak eta kasu batzuetan nahitaez egin beharreko aseguruak. Era berean, azpimarratzen da ikasle bakoitzak bilatu behar duela bere kabuz mugikortasunari buruzko informazioa, bai fakultatearen mugikortasun atalean eta bai UPV/EHUko Nazioarteko

Harremanetako web orrian. Behin esleipenak eginik, mugikortasunaren arduradunek bigarren bilera batera deitzen diete hautatuko ikasleei, azaltzeko zelan jarraitzen duen prozesuak behin destino bat esleiturik, eta zalantzak argitzeko. Azkenik, egonaldia hasi aurretik, Gizarte Langintzako Graduan hirugarren bilera bat egiten da, egonaldirako jarraibide praktikoak emateko eta Learning Agreement delakoa egiteko. Lan Harreman eta Giza Baliabideetako Graduan, berriz, bilera horren orde z banan banako tutoretzak egiten dira, ikasleak herrialdeka sailkatuz horretarako.

Bestalde, urtero, urriaren hasieran, UPV/EHUko Nazioarteko Harremanetako Bulegoak «International Week» delakoa antolatzen du nazioarteko mugikortasunaz, UPV/EHUko hiru campusetan egiten diren informazio saio batzuk. Testuinguru horretan, fakultateak bilera horien berri ematen die mugikortasunean interesa duten ikasleei (Gizarte Langintzako 2. mailakoei eta Lan Harreman eta Giza Baliabideetako eta NK+LH+GBetako 3. mailakoei), eta bertara joatera animatzen ditu, lehenengo kontaktua egin dezaten mugikortasun programekin. Hori fakultateko lehen mugikortasun bileren aurretik egiten da, Latinoamerika eta Beste Norakoak deialdi berria argitaratu aurretixe.

Lehen mailako ikasleentzako harrera programan ematen den informazioan ere mugikortasunaren inguruko aipamen orokor batzuk egiten dira. Nobedade gisa, Gizarte Langintzako Gradu 2021/2022 ikasturteko aurkezpenean, lehen mailako ikasleei ongi etorria emateko saioetan, oinarrizko informazio bat eman zitzaizen mugikortasun programez (2. mailako ikasleei emateaz gain, ohi bezala). Urteak dira halaxe egiten dela Lan Harreman eta Giza Baliabideetako Gradu eta NK+LH+GBetako Gradu Bikoitzeko ikasle berrientzako harrera ekitaldian. Informazioa osatzeko, Gizarte Langintzako Gradu harrera saioan ikasleei orri bat banatzen zaie, non azpimarratzen den zein garrantzitsua den 1. mailako kreditu guztiak gainditzea eta nota ona ateratzea mugikortasun programetan parte hartzeko, eta nola komeni den hizkuntzak ikastea horren inguruko eskakizunak dauzkaten herrialdeetara joan ahal izateko. LH eta GBetako Graduan informazio hori ematen da fakultateko web orriko mugikortasun atalean.

Kanpotik datozen ikasleei dagokienez, ikasleak eskaria egiten duenetik tratatu etengabea eta hurbila izaten dugu berarekin.

Besteak beste, azaltzen zaio zelan jarri harremanetan graduari mugikortasunaren gaia daramaten pertsonekin, nola den beharrezkoa bidai laguntzako aseguru espezifiko bat edukitzea, zein dokumentazio behar den matrikula egiteko eta zeintzuk diren konpromiso akademikoa aldatzeko epeak. Era berean, beren interesekoa izan daitekeen informaziorako estekak ematen zaizkio.

Gizarte Langintzako Graduak hobekuntza bezala proposatzen da taldeko bi informazio saio antolatzea ikasle horiekin: bata egonaldiaren hasieran eta bestea amaieran. Lehen saioan ikasleei oinarrizko informazioa emango zaie fakultateaz eta irakaskuntzaren funtzionamenduaz. Azkenekoa izango da agur esateko eta esperientziaren balorazioa egiteko, eta ikasleei azpimarratuko zaie zein garrantzitsua den beren ebaluazioa programa hobetzeko.

Lan Harremanetako eta Giza Baliabideetako Graduak orain arte bezala hasieran harrera saio bat egingo da kanpotik etorritako ikasleekin, eta egonaldiaren amaieran banan banako tutoretzak. Azkeneko horretan ikasketa amaierako ziurtagiria emango zaie.

Esandakoagatik, mugikortasuna hobeto kudeatze aldera, egonaldia behin amaiturik, fakultateak inkesta bat bidaltzen die bai kanpora joandako ikasleei eta bai gurera etorritako ikasleei.

Gainera, mugikortasunaren ardura daukan dekanordeak, gradu bakoitzeko koordinatzaileak eta programari lotutako administrazio eta zerbitzuetako langileak harreman zuzena dute ikasle bakoitzarekin, eta aholkuak eta orientabideak ematen dizkiete.

Ikasleek oso iritzi ona dute koordinatzaileak eta mugikortasuneko idazkariak emandako arreta horretaz, baina hobekuntza gisa proposatzen dugu informazio komunitate bat sortzea Gizarte Langintzako Graduak eskainitako mugikortasun programetarako hautatuak izan diren ikasleekin. Horrela, «MUGIKORTASUNEKO EGELAPI» delakoa sortuko da, ikasturte honetan mugikortasun programa batean parte hartuko duten ikasle guztiek beren zalantzak plazara ditzaten. Sarritan, deialdiaren fasearen arabera, zalantzak errepikatu egin ohi dira, eta denentzat erantzutea lagungarri gerta dakieke bai ikasle bakoitzari eta bai taldeari. Gainera, bilatzen da hori lan tresna izatea Mugikortasun Dekanotzari lana arintzeko, dokumentuak, deialdiak, abisuak eta halakoak bidaltzeari begira.

4.8.4. *Espezializatzeko ibilbideak, hautazko irakasgaiak eta minorrak*

Hautazko irakasgaiak zein aukera askekoak kudeatzeko beharrezkoa den informazioa ikastegiarekin harremanetan jartzen den unean jasotzen du ikasleak, informazio hori webgunean baitago eskuragarri eta, gainera, harrera programan eta Berdinen arteko Tutoretza Programan jasotzen den edukiaren zati bat baita.

Gizarte Langintzako Graduan "Gatazketan Esku-hartzea eta Gatazken Eraldaketa" espezializazioa eskura daiteke. Graduak 2. mailan ematen da eskaintzen diren aukerei buruzko informazioa:

1. Hautazko irakasgaiak egin, eskaintzen den minorra kontutan hartu gabe.
2. Eskaintzen den ildo edo minor osoa egin daiteke: 30 ECTS (24 kreditu 3. mailan, eta 6 kreditu 4. mailan).

Lan Harremanetako eta Giza Baliabideetako Graduak hautazko 48 kreditu ditu 4. mailan, eta batu egin daitezke bi espezialitate hauetako bat eskuratzeko: "Enpresari Aplikatutako Kudeaketa" edo "Enpleguaren Kudeaketa". Bi ibilbide horietako bakoitzak 30 kreditu ditu.

2018/2019 ikasturtean "Prestakuntza Duala" ibilbidea jarri zen abian. Ibilbide hori osatzen dute "Auditoria Soziolaborala" irakasgaiaren zati praktikoak eta beste bi irakasgaiak, bakoitza 24 kreditukoak. Horiek egiten dira enpresa batean lan egiten, 1230 orduko lan kontratuarekin. Parte hartzen duten ikasleek unibertsitateko tutore bat daukate, enpresako begirale bat, eta une oro ikaslea gidatu eta lagunduko duen batzorde misto bat.

Gradu bietan jakinarazten da hautazko kredituak amortizatu daitezkeela ekintza espezifiko hauek eginda: prestakuntzakoak, kulturalak, boluntario lanak, kirol jarduerak eta ikasleen ordezkari karguetan arituta. Jakinarazten da, baita, gehienera 6 ECTS amortizatu daitezkeela eta eskariak noiz egin behar diren. Eskariak irailean egin behar dira, baina ezohiko epe bat irekitzen da ikasketak amaitzear dituztenentzat.

4.8.5. *Gradu Amaierako Lanaren programa*

Gradu amaierako lana dekanotza taldeak kudeatzen du, talde horrek izendatzen duen koordinatzailearekin elkarlanean.

GRALa laugarren mailan egiten da gure ikasketetan. Ikasleek ikastegiaren araudia jasotzen duen gida bat dute eskuragarri, eta bertan ematen da tutoreak aukeratzeko prozesuaren

berri, bai eta lan horien ezaugarriei, egiturari eta ebaluazio irizpideei buruzko orientabideak ere. Urtero informazio tailer bat antolatzen da, honako hauen arteko loturari buruzko azalpenak emateko: ikasleak egiten ari diren hautazko irakasgaiak, aukeratuko dituzten praktikak, GRALean landuko den gaia, GRALa egiteko estrategiak eta bilaketa bibliografikoa. Gainera, GRALaren matrikula eta defentsa egiteko bidea ixten duten irakasgaien buruzko informazioa ematen zaie ikasleei. Tailer hori da Gizarte Langintzako 4. mailako ikasleentzat eta Lan Harreman eta Giza Baliabideetako 3. eta 4. mailako ikasleentzat.

Tutorea esleitzeko prozesua 4. mailan egiten da, eta horretan GRALaren koordinatzailearen laguntza du ikasleak. Behin tutorea esleituta, ikasleak tutoretza saio batzuk izaten ditu.

4.8.6 Prestakuntza Duala

Lan Harreman eta Giza Baliabideetako Graduan «Prestakuntza Duala» deritzon ibilbidea dago. Haren bidez, ikasleek osa dezakete ikasgelan jasotako prestakuntza enpresan eskuratzen dituzten gaitasunekin. Hau da, irakaskuntza-ikaskuntza prozesua hobetu gura dugu, enpresan ikasle bakoitzari banan banako laguntza eman eta unibertsitateko irakasle tutoreak prozesuari jarraipena eginez. Eredu dualaren abantaila bat da enpresek parte hartuko dutela ikasleen hautaketan, eta horrela beren premiak egoki bete ahal izango dituztela. Gainera, ikasleak txertatzea gizartearen garapen eta hazkunde jasangarriarekin konpromisoa daukaten enpresen sarean lagungarria izango da jakintza eta ezagutza euskal gizarteari transferitzeko.

Bestalde, LH eta GBetako Gradua lau modulutan antolatua dago. Moduluok bat datoz lau maila akademikoekin. Lehenengo hiru moduluetan nahitaezko irakasgaiak egiten dira; laugarren moduluan, aldiz, nahitaezko irakasgai bat dago, eta gainerakoa hautazko gaiak, borondatezko praktikek eta Gradu Amaierako Lanak osatzen dute. Ibilbide Duala laugarren moduluan (edo mailan) egingo litzateke: ordezkatu litzateke hautazko gai guztiak, zeinetan titulazioko gaitasun zehatzak eta transbertsalak ematen diren. Ibilbide Duala egiten duten ikasleek egonaldi bat egingo lukete enpresa batean (48 kreditu), bi fasetan banatua. Gainera, ikasleak enpresan egindako egonaldiari lotutako gradu amaierako lan bat egin eta aurkeztu beharko du (6 kreditu). Beraz, Ibilbide Dualean ikasleak 1.200 ordu egiten ditu enpresan, gehi GRALari dagozkion 150 orduak.

Informazio hori guztia 3. mailakoei emateko halako moduan non aukera izan dezaketen 4. mailan Prestakuntza Duala egiteko, informazio saio bat egiten da lehen lauhilekoaren

amaieran. Bileran azaltzen zaizkie ibilbide horren ezaugarriak, eta bertan sartzeko bete beharreko baldintzak eta egin beharreko urratsak.

4.8.7.- LSOMeko eta GBKUMeko praktika programak

Zalantza barik, praktikak ezinbesteko osagaia dira bi masterren prestakuntza programan, eta, izan ere, nahitaezkoak dira bietan. LSOMen 300 praktika ordu egin behar dira, hau da, 12 ECTS kreditu, eta GBKUMen, berriz, 337,5 ordu, hau da, 13,5 ECTS kreditu.

Masterretako harrera saioan hala azpimarratzen zaie ikasleei, eta informazioa ematen zaie dauden hitzarmenez, epeez eta behar den dokumentazioaz, besteak beste.

4.9. Prestakuntzarako laguntza programa: tutoretzak (fitxak eta abar)

Ikastegiko irakasleek GAUR aplikazioan grabatu behar dituzte ikasturteko tutoretzak. Aplikazioan bertan, irakats eskaintza atalean, tutoretzak nola grabatu behar diren azaltzen duen eskuliburua dago. Gainera, arautegiak dioenez, irakasleek administrazio eta zerbitzuetako langileei helarazi behar dizkiete tutoretzak, argitaratuak izan daitezen fakultatearen informazio oholetan eta webgunean, inprimaki eredu bera erabilia irakasle guztientzat..

Tutoretza saioaren baten ordua aldatzen bada, ikasleak jakinaren gainean jartzen dira, bai GAUR aplikazioaren bidez bai iragarki oholetan argitaratuta, hiru eskola egun lehenago gutxienez. Era berean, aldaketa horren berri ematen zaio AZPko langileari, webgunean argitara dezan, "Oharrak" atalean.

Tutoretzak argitaratzeko inprimaki eredu

CURSO 20 __/__ IKASTURTEA		____.LAUHILABETEA / ____ CUATRIMESTRE			
Irakaslea / Profesor/a:					
Luz. / Ext.:					
e-mail:					
IRAKASGAIA(K) / ASIGNATURA/S:					
⇒ _____					
⇒ _____					
	Astelehena Lunes	Asteartea Martes/	Asteazkena Miercoles/	Osteguna Jueves/	Ostirala Viernes/

TUTORETZA ORDUAK TUTORIAS					
ESKOLA ORDUAK HORARIO CLASES/					

Tutoretza saioen aldaketak argitaratzeko inprimaki eredua

TUTORETZA ORDUTEGIAREN ALDAKETA PUNTUALA
/CAMBIO PUNTUAL DE TUTORIAS

IRAKASLEA/PROFESOR/A: _____

BERTAN BEHERA GELDITZEN DEN EGUNA ETA ORDUA / DIA Y HORA QUE SE MODIFICA	EGUN ETA ORDU BERRIA/ NUEVO HORARIO
EGUNA/ DIA:	EGUNA/ DIA:
ORDUA/ HORA:	ORDUA/ HORA:

Ikastegiaren edo sailaren oniritzia / Visto bueno de centro ó del departamento

Sinadura eta zigilua / Firma y sello

_____, 20__(e)ko _____aren __(a)
_____, __ de _____ de 20____
(argitaratzeko kopia / ejemplar para hacer público)

4.10. Dibertsitate funtzionala/desgaitasuna duten pertsonen laguntzeko programa

Desgaitasuna edo dibertsitate funtzionala duten pertsonen UPV/EHUn gai horietaz arduratzen den zerbitzuarekin jarri behar dira harremanetan, bere eskubideei eta ikasketak egiteko unibertsitateak eskaintzen duen laguntzari buruzko aholkuak jasotzeko. Ikastegian dekanoa arduratzen da aipatutako gaiez.

Matrikulatutako irakasgaien ebaluazio probak egiteko baliabide teknikoak behar dituzten ikasleen kasuan, UPV/EHUko Ezgaitasunak dituzten Pertsonentzako Zerbitzuak jakinaren gainean jartzen ditu irakasgai horien irakasle arduradunak, GAUR aplikazioaren bidez.

Ikasleen premiei buruzko informazio gehiago behar izanez gero (test motako azterketak, grafikoak...), eta informazioa ez bada agertzen txostenean, irakasleek zerbitzura jo behar dute, ikastegiak ez baitauka ikasle bakoitzari buruzko informazio zehatza.

4.11. Ikasleak laneratzeko orientazio programa

Ikasleak laneratzeko orientazio programa laugarren mailako ikasleei zuzendua dago bereziki, eta zenbait ekintza biltzen ditu:

- Graduko ikasketen eskaintza: Graduondokoek espezializatzeko aukera ematen diete ikasleei, errazagoa izan dakien lan merkatuan sartzea:
 - Unibertsitateko espezialistaren berezko hiru titulu, joera profesional garbia dutenak (bi lotuta daude Gizarte Langintzako tituluarekin eta bestea Lan Harreman eta Giza Baliabideekin eta Gizarte Langintzarekin) eta master ofizial bat (Lan Harreman eta Giza Baliabideetako tituluarekin lotua).
 - Lanbide arauturako master bat, Laneko Segurtasun eta Osasun Masterra, gaitasuna ematen duena laneko arriskuen prebentzioko goi mailako teknikariaren eginkizunak betetzeko. Master honek OSALAN Laneko Segurtasun eta Osasunerako Erakundearen dirulaguntza eta giza baliabideen sostengua dauzka.
- Laneratzeko orientazio jardunaldiak (ikus 4.11.1 eta 4.11.2)
- Lan arlora igarotzeko beken programa (ikus 4.11.3 puntua)

4.11.1.- Graduko ikasleak laneratzeko orientazio programa

Laneratzeko orientazio jardunaldia urtero antolatzen da laugarren mailako ikasleentzat. Jardunaldiak hainbat bloke ditu eta, lehenik eta behin, azaltzen da nola egin curriculum on bat eta nola egin enplegu, LEP eta antzekoen bilaketak. Bigarrenez, enplegarritasun esperientziak aurkezten dira, graduekin zerikusia daukaten sektoreetakoak. Hirugarrenez, lan arlora igarotzeko bekei eta «Global» bekei buruzko informazioa ematen da: zer diren, nola eskuratu, bekek eskatzeko betebeharrak, etab. Orientazio jardunaldian parte hartu ohi dute, halaber, graduari lotutako lanpostuetan lanean ari diren ikasle ohiek, bai eta elkargo profesionaletako ordezkariak ere.

4.11.2- Graduondoko ikasleak laneratzeko orientazio programa

Masterretan, lehen maila amaitzean laneratzeko orientazio jardunaldi bat egiten da urtero, non sektoreko profesionalek lanbidearen alderdi desberdinak azaltzen dizkieten ikasleei: zein gaitasun eskatzen dituzten sektoreko enplegatzailerak, zein irtenbide dauden lanerako, nolakoa den eguneroko bizimodua lanbidean etab.

4.11.3-Hezkuntza esparrutik lan arlora igarotzeko beken programa

Hezkuntza mundutik lan mundura igarotzeko beken programa UPV/EHUren eta Eusko Jaurlaritzako Hezkuntza Sailaren arteko hitzarmenaren emaitza da. Helburua da ikasleek beren gaitasuna handitzea, lan esperientzia baten bidez profil profesional jakin bateko gaitasunekin loturiko jakintza, abilezia, trebetasun eta jarrerak eskuratuz.

Azken mailan matrikulatutako ikasleek eta aurreko urtean titulatu direnek egin dezakete eskaria. Hiru hilabeteko praktikaldia egiten da enpresa batean, astean 30 ordu eginez gehienez (360 gehienera). Programan parte hartzen duen ikasle bakoitzak 1.500 euro jasoko ditu konpentsazio ekonomiko gisa hiru hilabeteko aldia amaitzean, eta horri dagokion zerga atxikipena deskontatuko zaio.

Informazio bilera bat egiten da laugarren mailako ikasleekin programa osoa aurkezteko, eta, batez ere, zelan parte hartu azaltzeko.

5. IRAKASKUNTZARAKO PLATAFORMA TEKNOLOGIKOAK

Irakaskuntzarako baliabideen txosten honetan azaltzen dira irakasle eta ikasleek erabilgarri dituzten lau baliabide, fakultatearen eta UPV/EHUren plataforma teknologikoan daudenak: ikastegiaren webgunea, eGela, GAUR plataforma eta ZAINDEGI zerbitzua.

Fakultatearen webgunean (<https://www.ehu.es/eu/web/lan-harreman-gizarte-langintza-fakultatea/>) fakultatearen funtzionamenduari eta eskaintzen dituen titulazioei buruzko informazioa agertzen da, baliabide materialen erabileraren gainekoa, bai eta ikastegiaren antolaketari eta langileei buruzko informazioa ere. Era berean, titulazioaren funtsezko alderdiei buruzko informazioa agertzen da: irakaskuntza gidaliburuak; antolaketa akademikoa; arautegiak; jarraibideak; eta gradu amaierako lanari, kanpoko praktikei, Practicumari eta abarri buruzko informazio garrantzitsua.

eGela baliabidea (<https://www.ehu.es/eu/web/ikt-tic/eaz-cau>) e-learning tresna bat da, irakaskuntza arauturako, UPV/EHUko IKTn Gerenteordetzak eskaintzen duena. Baliabide horren bitartez irakasgaietan landuko diren gaiak helarazten dizkiete irakasleek ikasleei

(azalpenen power point-ak, artikulak, monografiak...) banaka zein taldean egiteko lanetarako materiala (edukietan sakontzen duten fitxategiak, albisteak, webguneetarako estekak...), eta irakasgaiari buruzko oharak jartzeko aukera ematen du.

GAUR plataformaren bidez (<http://gestion.ehu.eus/gaur>) ikasleek unibertsitatean egiten duten ibilbide osoa kudeatzen da eta, gainera, irakasleen eta ikasleen arteko komunikazio zuzena ahalbidetzen du, irakasgaien ebaluazioari dagokionez.

Zaindegi zerbitzua (<http://ehu.eus/zaindegi>), berriz, unibertsitateko kide guztiei eskaintzen zaien zerbitzua da fitxategiak azkar trukatu ahal izateko, erabiltzaileen artean. Tresna hori sortu zen UPV/EHUko erabiltzaileek premia izaten dutelako posta elektronikoaren zerbitzuak ezarritako mugak gainditzen dituzten fitxategiak elkartrukatzeko. Tresna erabilerraza egin nahi izan da, gutxieneko segurtasun maila bat eskaintzen duena. Zerbitzuak eremu bat dauka non erabiltzeek (UPV/EHUkoak zein kanpokoak) fitxategiak jar ditzaketen (kode batez babestuta egon daitezkeenak), beste erabiltzaile batzuk har ditzaten eta, hori egin ondoren, ezabatu.

6. IKASTEGIAREN BARRUKO KOMUNIKAZIO MEKANISMOAK

Pertsona bakoitza arduratu behar da beharrezkoa duen informazioa bilatzeaz eta, horretarako, bide hauek erabil ditzake:

1. Webgunea: bertan dago ordutegiari, tutoretzei, azterketei eta antolatutako ekintzei buruzko informazioa, hala nola arlo akademikoko OHARRAK (eskola aldaketak, irakasleen bajak eta ordezkioak...) eta ikasketetarako, ikastegirako edo irakasgaietarako interesgarriak diren ekintzen eta albisten iragarkiak ere.
2. Posta elektronikoa: irakasleek ikasleak jakinaren gainean jartzeko erabiltzen duten bide nagusia. Unibertsitateak berak ematen du posta elektronikoko kontua matrikula egiterakoan.
3. Fakultatearen orri korporatiboa Facebooken: bertan argitaratzen dira deialdiak, mintegiak, jardunaldiak eta fakultatearekin eta haren jardun eremuarekin zerikusia duten albisteak.
4. Ikastegiaren informazio taulak:
 - Arlo akademikoko ohar ofizialak eta abar.
 - Batzar, batzorde eta abarren erabakiak
 - Tutoretzen ordutegiak

- informazio orokorra, prestakuntza osagarriari eta bestelako gaiei buruzkoa.
- 5. Ikastegiko atarian kokatutako informazio pantaila
- 6. UPV/EHUK zein beste erakunde batzuek antolatutako jardueri buruzko informazio gunea
- 7. Kexa eta iradokizunetarako postontzia anonimoa da, eta edonoren eskura dago ikastegiko atarian (paperean) eta webgunean (banner bat).

8. PROGRAMEN KRONOGRAMA

MAILA	Etorkizune ko ikasleak	1.a	2.a	3.a	4.a
4.1.- Orientazio programa etorkizuneko ikasleentzat					
4.1.1.- Informazio saioak	X				
4.1.2.- Unibertsitate orientazioko azokak.	X				
4.1.3.- Ateak zabaltzeko egunak	X				
4.1.4.- Jarduera praktikoak	X				
4.2.- Ikasleentzako harrera programa		X			
4.3.- Taldeei/mailei ongietorria egiteko programa		X	X	X	X
4.4.- Berdinen arteko Tutoretza Programa		X			
4.5.- Taldeen ordezkariak		X	X	X	X
4.6.- Diziplina eta elkarbizitza		X	X	X	X
4.7.- Kexak eta iradokizunak	X	X	X	X	X
4.8.- Irakasgaiak, moduluak eta titulazioa koordinatzeko programa					
4.8.1.- Praktiken programa				X	X
4.8.2.- Garapenerako lankidetza praktiken programa				X	X
4.8.3.- Mugikortasuna			X	X	X
4.8.4.- Espezializatzeko ibilbideak, hautazko irakasgaiak eta minorrak				X	X
4.8.5.- Gradu amaierako lanaren programa				X	X
4.9.- Prestakuntzarako laguntza programa: tutoretzak (fitxak eta abar)		X	X	X	X
4.10.- Dibertsitate funtzionala/desgaitasuna duten pertsonei laguntzeko programa		X	X	X	X
4.11.- Ikasleak laneratzeko orientazio programa				X	X

Programa guztien ebaluazioa egiten da, eta hobetzeko ekintzak proposatzen dira.

9. Ebaluatzaileen taula: EBALUAZIO TRESNAK ETA MAIZTASUNA

Programa/ebaluatzailea	Ikastegiko ebaluatzailea	Ebaluazio tresnak	Data/maiztasuna
4.1.- Orientazio programa etorkizuneko ikasleentzat			
4.1.1.- Informazio saioak	Komunikazioko eta Irakaskuntza Berrikuntzako dekanordea	Ebaluatzailearen txostena	Saioak amaitutakoan
4.1.2.- Unibertsitate orientazioko azokak	Komunikazioko eta Irakaskuntza Berrikuntzako dekanordea	IAZen inkestak (ez ditugu fakultateko emaitzak jasotzen, UPV/EHU osoko laburpena baizik) Gure txostena	Ebaluazioa urtero egiten da eta txosten desglosatu gabea irailan jasotzen da.
4.1.3.- Ateak zabaltzeko egunak	Komunikazioko eta Irakaskuntza Berrikuntzako dekanordea	IAZen inkestak (ez ditugu fakultateko emaitzak jasotzen, UPV/EHU osoko laburpena baizik) Gure txostena	Ebaluazioa urtero egiten da eta txosten desglosatu gabea irailan jasotzen da.
4.1.4.- Jarduera praktikoak	Komunikazioko eta Irakaskuntza Berrikuntzako dekanordea	Gogobetetze inkestak (paperean eta on line)	Urtero (praktikak amaitutakoan)
4.1.5.- Master egunak	Masterretako zuzendariak	Graduondokoaren arloko Zuzendaritzak antolatzen du On lineko inkesta (ez dute txostenik bidali)	Urtero (saioak amaitutakoan)
4.2.- Ikasleentzako harrera programa			
4.2.1.- Graduak	Egoitzaren Koordinazioko eta Mugikortasuneko dekanordea	Gogobetetze inkestak (paperean)	Urtero (saioak amaitutakoan)
4.2.2.- Graduondokoak	Masterretako zuzendariak	Gogobetetze inkestak (papera)	Urtero (saioak amaitutakoan)
4.3.- Taldeei/mailei ongietorria egiteko programa	Egoitzaren Koordinazioko eta Mugikortasuneko dekanordea	Foku taldea ordezkariekin	Urtero (ikasturtea amaitutakoan)
4.4.- Berdinen arteko Tutoretza Programa	Programaren arduraduna	Gogobetetze inkestak on line HELAZ	Urtero (saioak amaitutakoan)
4.5.- Taldeen ordezkariak	Egoitzaren Koordinazioko eta Mugikortasuneko dekanordea	Foku taldea	Urtero (ikasturtea amaitutakoan)
4.6.- Diziplina eta elkarbizitza	Idazkari akademikoa eta Kalitateko eta IRIen arloko dekanordea	Erabakiak	

4.7.- Kexak eta iradokizunak	Ikasleak Egoitzaren Koordinazioko eta Mugikortasuneko dekanordea IRIak: Idazkari akademikoa eta Kalitateko eta IRIen arloko dekanordea	K/i/e erregistroa	K/i/e bakoitza itxitakoan Urtero, Kudeaketa Planaren Urteko Txostenean
4.8.- Irakasgaiak, moduluak eta titulazioa koordinatzeko programa			
4.8.1.- Praktiken programa	Prestakuntza Dualeko eta Borondatezko Praktiketako dekanordea	Gogobetetze inkesta 2021/2022	Urtean behin saioa amaitutakoan.
4.8.2.- Garapenerako lankidetzaren praktiken programa			
4.8.3.- Mugikortasuna	Egoitzaren Koordinazioko eta Mugikortasuneko dekanordea	Ikasgelan ematen da informazioa, eskola orduetan. Ez da aparteko saio bat, eta orain arte ez da haren balorazio formalik egin. 2022/2023 ikasturtetik aurrera galdetegi estandarizatu baten bidez baloratuko da.	Urtean behin
4.8.4.- Espezializatzeko ibilbideak, hautazko irakasgaiak eta minorrak (Oharra: Prestakuntza duala izan ezik)			
4.8.5.- Gradu Amaierako Lanaren programa	Egoitzaren Koordinazioko eta Mugikortasuneko dekanordea	GRALari buruzko mintegiaren galdetegia	Urtean behin, maiatz-ekaineko GRALaren deialdiaren aurretik
4.8.6 Prestakuntza Duala	Prestakuntza Dualeko eta Borondatezko Praktiketako dekanordea	Gogobetetze inkesta 2021/2022	Urtean behin saioa amaitutakoan. Lehen lauhilekoaren amaieran

IKASTEGIKO IKASLEENTZAKO HARRERA ETA ORIENTAZIO PLANA (2020/2024)

LAN HARREMAN ETA GIZARTE LANGINTZA FAKULTATEA

4.8.7.- Masterreko praktikak (LSOM eta GBen eta Enpleguaren Kudeaketa masterra)	Masterretako zuzendariak	Gaiari arreta berezia ematen zaio masterreko harrera jardunaldian Gogobetetze inkesta	Urtero, harrera jardunaldiaren ostean
4.9.- Prestakuntzarako laguntza programa: tutoretzak (fitxak eta abar).			
4.10.- Dibertsitate funtzionala/desgaitasuna duten pertsonen laguntzeko programa	Egoitzaren Koordinazioko eta Mugikortasuneko dekanordea	Ez dago eta ez da egon behar	
4.11.- Ikasleak laneratzeko orientazio programa			
4.11.- Graduoko ikasleak laneratzeko orientazio programa	Prestakuntza Dualeko eta Borondatezko Praktiketako dekanordea	Gogobetetze inkesta	Urtean behin saioa amaitutakoan.
4.11.- Graduondoko ikasleak laneratzeko orientazio programa	LSOMeko zuzendaria	Gogobetetze inkesta	Urtean behin saioa amaitutakoan.
4.11.3.- Lan mundura igarotzeko bekak	Prestakuntza Dualeko eta Borondatezko Praktiketako dekanordea	Gogobetetze inkesta 2021/2022	Urtean behin saioa amaitutakoan. Bigarren lauhilekoaren hasieran.

**10. PROGRAMAREN ERAGINKORTASUNARI BURUZKO
TAULA. 2020/2021 ikasturteko memoria eta 2021/2022,
2022/2023 eta 2023/2024 ikasturteetarako plana**

Programak/Eraginkortasuna eta ekintzak	Eraginkortasuna (ebaluatzaileak emandako % a)	2020/2021ean egindako esku hartzeak	Egin beharreko ekintzak eta egiteko urtea
4.1.- Orientazio programa etorkizuneko ikasleentzat			
4.1.1.- Informazio saioak	% 20	3 bisita	Bisitarik ezin denez egin (baliabide faltagatik), horren ordez jarduera bat egin da on line. 2021/2022 ikasturtean gauzatu da
4.1.2.- Unibertsitate orientazioko azokak	% 100	Gogobetetze maila oso handia denez, ez da beharrezkotzat jo	Mantentzea
4.1.3.- Ateak zabaltzeko egunak	% 100	Gogobetetze maila oso handia denez, ez da beharrezkotzat jo	Mantentzea
4.1.4.- Jarduera praktikoak	% 100	Gogobetetze maila oso handia denez, ez da beharrezkotzat jo	Begiratu ea zenbat ikasle matrikulatzen diren praktiketara joan eta gero. 2022an egitekoa
4.1.5.- Master Egunak	% 30	Fakultate ugaritara egin dira bisitak Graduondokoen arloko Zuzendaritzak bultzatutako programaren bidez.	Jarraituko dugu joaten ikasle gutxi azaltzen badira ere. 2020/2021 ikasturtean on line egin zen, eta aurreko ikasturteetako saio presentzialetan baino jende gehiagok hartu zuen parte.
4.2.- Ikasleentzako harrera programa			
4.2.1.- Graduak	% 100	Bilera bateratua egin da graduko eta gradu bikoitzeko ikasleekin, eta beste bat gradu bikoitzekoekin bakarrik.	Gradu bikoitzekoekin aparte egiten den saioan xehetasun gehiago eman behar dira, ikasketa horien berezitasunak azaltzeko. 2022/2023 ikasturtean egitekoa.
4.2.2.- Graduondokoak	% 100	Harrera ekitaldia	Mantentzea
4.3.- Taldeei/mailei ongietorria egiteko programa	% 100	Lehen mailakoen ongietorria sinplifikatu egin da, neurri batean ikasturte hasierako harrera ekitaldi orokorraren errepikapena zelako.	Mantentzea

4.4.- Berdinen arteko Tutoretza Programa	% 60	Programa ez da oso erakargarria ikasleentzat.	2021/2022 ikasturterako koordinatzailea aldatu da, bultzada bat ematen saiatzeko.
4.5.- Taldeen ordezkariak	% 100	Aurreko ikasturtean parte hartzea oso handia izan zenez, ez da beharrezkotzat jo.	
4.6.- Diziplina eta elkarbizitza	Ez da beharrezkoa izan		Garatzea egoitzan 2017an onartutako prozedura. Atalean gauzatzeke dago. Egiteko epea: 2022ko urtarrila.
4.7.- Kexak eta iradokizunak	% 100	Ez da beharrezkoa, sistematizatuta dagoelako eta i/k/e-en % 100i erantzuten zaiolako	-
4.8.- Irakasgaiak, moduluak eta titulazioa koordinatzeko programa			
4.8.1.- Praktiken programa	Ez zen ebaluatzen. Hala ere, informazioa heldu egiten da, 80 praktika inguru egiten baitira	Orain arte dekanotzak informazioa ematen zien hala eskatzen zuten ikasleei.	2022/2023 ikasturtetik aurrera saio bat egingo da horretarako, eta galdetegi estandarizatu baten bidez baloratuko da.
4.8.2.- Garapenerako lankidetzaren praktiken programa			
4.8.3.- Mugikortasuna	% 100	Gogobetetze maila oso handia denez, ez da beharrezkotzat jo	Aparteko saioak egitea graduiko ikasleekin eta gradu bikoitzeko ikasleekin 2021/2022 ikasturtean egitekoa
4.8.4.- Espezializatzeko ibilbideak, hautazko irakasgaiak eta minorrak			
4.8.5.- Gradu Amaierako Lanaren programa	% 100	Gogobetetze maila oso handia denez, ez da beharrezkotzat jo	

4.8.6 Prestakuntza Duala	Ez zen ebaluatzen, baina plazak baino eskari gehiago egoten dira	Orain arte 3. mailako ikasgeletan ematen zen informazioa, eskola orduetan. Ez zen aparteko saio bat, eta orain arte ez da haren balorazio formalik egin.	2021/2022 ikasturtetik aurrera saio espezifikoa egingo da 3. mailako ikasleekin, eta galdetegi estandarizatu baten bidez baloratuko da.
4.8.7.- Masterreko praktikak (LSOM eta GBen eta Enpleguaren Kudeaketa masterra)	% 100	Gogobetetze maila oso handia denez, ez da beharrezkotzat jo	Mantentzea
4.9.- Prestakuntzarako laguntza programa: tutoretzak (fitxak eta abar).			
4.10.- Dibertsitate funtzionala/desgaitasuna duten pertsonen laguntzeko programa			
4.11.- Ikasleak laneratzeko orientazio programa			
4.11.- Gradu ikasleak laneratzeko orientazio jardunaldia	% 100	Ez da beharrezko ikusten ekintza berririk egitea	Jardunaldia mantentzea
4.11.2.- Gradu ikasleak laneratzeko orientazio jardunaldia	% 100	Ez da beharrezko ikusten ekintza berririk egitea	Jardunaldia mantentzea
4.11.3.- Lan arlori igarotzeko bekak	Ez zen ebaluatzen, baina beka guztiak ematen dira, beraz informazioa heldu, heldu egiten zen	Orain arte dekanotzak informazioa ematen zuten hala eskatzen zuten 4. mailako ikasleei. Aurreko informazio orokorra web orriaren bidez ematen zitzaizkien ikasle guztiei.	2021/2022 ikasturtetik aurrera saio espezifikoa egingo da 4. mailako ikasleekin, eta galdetegi estandarizatu baten bidez baloratuko da.